



❖ ATEZ ATEKOA BILKETA

Usurbileko Atez Atekoa ezagutzeko irteera antolatu dute herriko jubilatuentzat

Hernaniko jubilatuentzako bisita antolatu dute, Usurbileko Atez Atekoa ezagutzeko. Bisita urtarrilaren 4an izango da. Autobusa goizeko 09:00etan aterako da, Atsegindegitik. Izena Goiz Eguzkiko egoitzan eman behar da, eta urtarrilaren 3ra arte izango da aukera, eguerdiko 12:00ak arte; izen ematea irekia da. Bisita Oiartzungo jubilatuekin batera izango da, eta ondoren *lunch*-a ere izango da. ||

❖ FUTBOLA

Hernanik gaur jokatu du

Hernanik Aurrera de Ondarroaren kontra jokatu du, gaur, 19:30etan, Zubipen. ||

❖ PORTU AUZOA

Txotxongiloak gaur

Rosa Martinezen eskutik, txotxongiloak izango dira gaur Portu auzoan; 18:00etan hasita. ||

❖ A EK

Laboaren omenezko DVDa salgai

Mikel Laboaren omenezko DVDa salgai dago Aralar, Oindi, Tripontzi eta Zumitzan, 10 euroan. ||

❖ EREÑOTZU

Mus txapelketa gaur Irrintzin

Mus txapelketa antolatu dute gaur Irrintzi tabernan. Gaueko 22:30etan hasiko dira partidak. ||

❖ MUSIKA

Dj rockKaiet Bodegan

Dj rockKaiet izango da bihar Bodegan musika jartzen, gaueko 01:00etatik aurrera. ||

Bertsolata, Erregeen kabalgata eta Txotx eguna dira urtarrileko ekitaldi nagusiak

Urte berria ekitaldiz gainezka dator, hilaren bigarren egunetik hasi eta azkenera arte izango da zertaz gozatu. Aipatutakoez gain, hilabeteroko ekintzak ere ez dira faltako: literatur solasaldiak, erakusketak, zine kluba...

BI egun besterik ez dira falta urte berrian sartzeko, eta hasiera ona emateko, ekitaldiz josita-ko urtarrila antolatu dute.

Hilaren 2an, Bertso jaialdia izango da Oialumen, Hernaniko Bertso Eskolak antolatuta. Gaueko 22:30etan hasiko da, eta kantuan ariko dira Txapelketa Nagusiko lau aurrenekoak, eta bertso eskolako beste bi kide: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia, Andoni Egaña, Iñaki Zelaia eta Agin Rezola. Sarrerak bertan jarriko dituzte salgai, hasi aurretik. Eta urtarrilaren 4an, *Hernani Bertsoan* proiektuaren aurkezpena, Biterin, 19:00etan.

Urte hasieran baita ere, umeek izango dute bere txokoa. Urtarrilaren 4an disko festa txikia izango da, Atsegindegi plazan, arratsaldeko 17:00etan hasita. Hurrengo egunean berriz, 5ean, arratsaldeko 18:00ak aldera iritsiko dira Hernanira Ekialde Urruneko erregeak.

Txotx eguna 17an

Urtarrila izanda, aurten ere ez



Txotx irekiera hilaren 17an egingo da.

da Txotx eguna faltako. Urtarrilaren 17an izango da, igandea. Txotx egunean irekitzen da Hernaniko txotx denboraldia, eta Plazara bertaraten diren guztiek aurtengo sagardoa probatzeko aukera izango dute. Horrez gain, beste hainbat ekitaldi ere antolatzen dituzte egunaren bueltan.

Ipuin kontaketa eta literatur solasaldiak

Hilabeteroko kultur egita-

rauetan falta izaten ez diren ipuin kontaketa eta literatur solasaldiak ere izango dira urtarrilean. Hilaren 26an, Lur Korta kontalariaren eskutik, ipuin kontaketa izango da Udal liburutegian; 3-4 eta 5-7 urte bitarteko umeei zuzenduta.

Literatur solasaldiak berriz, izango dira hilaren 13, 14 eta 19an. Hilabete honetan aztergai izango dituzten liburuak dira *Dentro de mi*,

Labirintoaren erbestean, eta *Connemara gure bihotzean*. Solasaldi guztiak Udal liburutegian izango dira, arratsaldeko 19:30etatik aurrera.

Oleo, pintura eta eskultura erakusketak

Erakusketei dagokienez, hilaren 11tik 25era Oleoak erakusketa izango da, eta urtarrilaren 28tik otsailaren 11ra pintura eta eskultura erakusketa. Biak Biterin izango dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Hiru pelikula jarriko dituzte zine klubean

Zine klubari dagokionez, urtarrilean hiru pelikula jarriko dituzte. Hilaren 14an, *500 dias juntos* pelikula jarriko dute; 21n, *Si la cosa no funciona*; eta urtarrilaren 28an, *Paris*.

Hiru pelikulak 2009garren urtean egindakoak dira, eta ohi bezala, Biteri kultur etxean jarriko dituzte, gaueko 21:30etan. ||

Hernanik, Realak eta Añorgak jokatu dute bihar Labaien torneoa

GABONETAN, urtero jokatzen da Labaien torneoa, eta aurtengo partidua bihar izango dira. Torneo triangularra izango da, hiru talderen arte-

koa: Hernani, Realak eta Añorga. Talde bakoitzak bina partidua jokatu ditu: aurrenekoa, 16:00etan, Añorga eta Hernaniren artekoa izango da;

bigarrena Errealak eta Añorgak jokatu dute, 17:00etan; eta hirugarrena, 18:00tan hasita, Hernani eta Realaren artekoa izango da.

Juantxo Labaienen omenez Torneoa Juantxo Labaienen omenez antolatzen du CD Hernanik. Aurtengoa 37garren edizioa izango da. ||

Allianz 

ASEGURUAK

bizitza -	- enpresak
istripuak -	- ardura zibila
ibilgailuak -	- finantz aseguruak
etxeak -	- inbertsioak...
komertzioak -	

Bulego berria:
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

agustin ezponda irizar
agentzia

Argitarapen honen laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Mendi Lore
loradenda, jardineritza



URTE BERRI ONI

ZURE LORADENDA HERNANIN

Larramendi 5, HERNANI. Tel: 943 55 23 26.

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauzez**: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA ● **GAUR** Hego haizeak zakar joko du berriro. Zerueta lainotuta egongo da eta goizean euri pixka bat egin dezake. Temperatura 18°C inguruan ibiliko da.

BIHAR Urtea haize zakar eta tenperatura jaitsierarekin bukatuko da. Zaparradak botako ditu, batez ere arratsaldeko azken orduetatik aurrera.

Ezeiza eta Esnaolak Gipuzkoako txapelketa irabazi dute Usurbilen kontra 22-18 nagusituta

Nagusi mailakoa ez zen Hernaniko pelotariak jokatu final bakarra izan. Altuna eta Lujanbio IIak 13-22 galdu zuten Oiarperen kontra, eta Santxo eta Lizeagak 16-22 Aurrera Saiazen aurka.

GIPUZKOAKO txapelketa finalak jokatu dituzte asteburuan Hernaniko lau bikotek. Nagusi mailan, Ezeiza eta Esnaolak txapela jantzi zuten, Usurbili 22-18 irabazita. Eta juveniletan, Aierbe eta Ugalde ere nagusi izan ziren Irazustabarrena eta Gutierrezen kontra, 30-22.

Gainontzeko bi bikoteek ordea, ezin izan zuten garai-

pena lortu. Kadete mailan, Altunak eta Lujanbio IIak 13-22 galdu zuten Oiarperen kontra. Eta jubencil mailan, Santxo eta Lizeagak ezin izan zuten Aurrera Saiazen kontra, 22-16.

Beste bederatzi partidu ere jokatu ziren
Aipatutako finalez gain, beste bederatzi partidu ere jokatu zituzten Hernaniko

pelotariak, eta ondorengoak izan ziren emaitzak: Aurrera Saiaz 22/Eneko Aizpitarte 20; Real Sociedad 30/Manzidor-Lukas 28; Pagola-Otxotorena 30/Intxaurrondo 20; Jon Leonet 30/Urnieta 13; Gazteleku 30/Egoitz Altuna 2; Urnieta 30/Jon Etxegoien 23; Oier Garcia 30/Oiarpe 22; Behar Zana 40/Eñaut Esnaola 23; Aritz Otaegi 40; Aurrera Saiaz 22. ||

ARRAUN ELKARTEA



Ion Urretabizkaiari tokatu zaio Gabonetako saskia, 8.294 zenbakiarekin.

Hernaniko Arraun Elkartek Gabonetako saskiko zenbakiak banatu ditu aurten, eta zenbaki saritua Gabonetako loteriarekin batera atera da. Jakinarazi dutenez, 8.294a da atera den zenbakia. Saritua Ion Urretabizkaia izan da, eta dagoneko jaso du tokatutako saskia. ||

GABONETAKO EKINTZAK 2009

ABENDUAK 30

Tatatxan jauna: magia komikoa
Lekua: Biterin
Ordua: 17:00

Saskibaloiko Gabonetako trofeoa
Orduetgia: 16:15-20:30

ABENDUAK 31

Urte Zaharreko Erronda
Lekua: Gudariaren plazatik
Ordua: 17:30

URTARRILAK 1

Incansables txaranga
Ordua: 01:30

URTARRILAK 2

Bertso Jaialdia
Lekua: Oialumeko aretoa
Ordua: 22:30

Zinea euskaraz: Pluk
Lekua: Biteri kultur etxea
Ordua: 17:00

URTARRILAK 3

Zinea euskaraz: Pluk
Lekua: Biteri kultur etxea
Ordua: 17:00

URTARRILAK 4

Disko festa txiki:
Lekua: Atsegindegi plaza
Ordua: 17:00

Hernaniko bertsolaritza. DVD aurkezpena.
Antolatzailea: Bertso-eskola
Lekua: Biteri kultur etxea
Ordua: 19:00

URTARRILAK 5

Erregeen kabalgata
Irteera: Latsunbeberri auzotik
Ordua: 18:00

IMANOL OLAZABAL ETXABE

Herenegun hil zen, 39 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Emaztea: Jaione Zerain; seme-alabak: Iraia eta Enaitz; ama: Maria Jesus Etxabe (Vicente Olazabalen alarguna); ezkon ama: Begoña Miner (Daniel Zerainen alarguna); anai-arrebak: Itziar eta Aitor; koinatu-koinatak: Aritz eta Itziar, Aitzol eta Olatz; ilobak: Oier, Ekain eta Etxahun; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetzela **GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Astigarragako AMA BIRJIN JASOKUNDEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker. **Astigarragan, 2009ko abenduaren 30ean**

Helbidea: Tranbia Ibilbidea, 3 - 3. G

Oharra: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN goizeko

IMANOL OLAZABAL ETXABE

TXIMELAKO LANKIDEAK

Astigarragan, 2009ko abenduaren 30ean

IMANOL OLAZABAL ETXABE

*Mingarri da horrela
aldendu beharra
Imanol, gogoratzen
dugu zure garra:
zure bizi poza ta
zure irrifarra,
zure oroitzapena
da gure indarra.*

EREÑOTZUKO LAGUNAK

Ereñotzu-Hernanin, 2009ko abenduaren 30ean

I. URTEURRENA IMANOL OLAZABAL ETXABE

*"Beti gure bihotzetan.
Maite zaitugu"*

MANOLO, JOSUNE eta ANE

Hernanin, 2010eko abenduaren 28an

IMANOL OLAZABAL ETXABE

ZURE LAGUNA, BONI

Ereñotzu-Hernanin, 2009ko abenduaren 30ean

IRAGARKI MERKEAK

Okindegi batean dendarri lanerako emakume jator bat behar degu, larunbat eta igandetan ere lan egiteko prest. Interesatuak deitu mesede 653 70 35 31.

Erreferentzi onak ditudan neska naiz, eta adineko pertsonak zainduko nituzke, gauzez, eta goizez garbiketa lanak egingo nituzke, 2 orduz. Deitu: 626 802 083

Pixu bat alokatzen da. 3 gelakoa eta komedorearekin. Igogailua eta kalefakzioarekin. Deitu 943 55 71 84 (ilunabarreko 19:00etatik 20:00etara)

Portatila salgai, egoera onean egoteagatik itzuli ezin dena. Toshiba Tecra A9, Intel Core 2 Duo Mobile T7250, 2.0 Ghz, DVD grabagailua, Windows Vista. **Prezioa: 430€.** Deitu: 678 595 638

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, gabonetako eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta berterbrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**

lñigo **Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berterbrala, reflexologia, auriculoterapia...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**